

## F-K 1 DISOLUZIOAK ERREPASO (1)

**MASA ATOMIKOAK: Na=23; Cl=35,5; Ca=40; O=16; H=1; N=14; C=12**

- 1.- Sodio kloruroaren disoluzio bat prestatu dugu 35 g NaCl 500 mL uretan disolbatuz. Kalkula ezazu disoluzio horren molartasuna. Zenbat mL hartu behar dugu 20 g edukitzeko?  
**(1,2 M 283 mL disoluzio.)**
- 2.- 2 g kaltzio hidroxido 200 ml uretan disolbatuz, 1,05 g/mL dentsitatea duen disoluzioa prestatu da. Atera lorturiko disoluzioaren molartasuna eta masa portzentajea.  
**(0,14 mol/L; %0,95)**
- 3.- 50 ml eter (formula:  $C_2H_{10}O$  eta dentsitatea:  $d=0,71$  g/ml) etanoletan disolbatzen dira 100 ml-ko disoluzioa lortu arte. Zein da eterraren molartasuna?  
**(7,1 mol/L)**
- 4.- Laborategiko azido nitriko ( $HNO_3$ ) disoluzioak 1,4 g/mL-ko dentsitatea du eta masa portzentaia %68-koa. Disoluzio horretatik abiatuta 4 M den 250 mL disoluzio prestatu nahi dugu. Ze bolumen hartu behar dugu?  
**(66,2 mL botilako disoluzio)**
- 5.- 0,1 M den HCl-zko disoluzio baten 0,5 L prestatu nahi dira. Horretarako %36 masan eta dentsitatea 1,19 g/mL dituen HCl-zko disoluzioa dugu. Zein da hartu beharko dugun bolumena hasierako disoluzioa prestatzeko? Nola prestatuko zenuke?  
**( 4,27 ml)**
- 6.- Nola prestatuko zenuke %20 masan eta dentsitatea 1,22 g/mL-koa duen sodio hidroxidozko disoluzioaren 2L. Zein da disoluzio horren molaritatea? Eta kontzentrazioa g/l-tan?  
**(488 g NaOH pisatuz eta , gero, ura gehituz bolumen totala 2L izan arte; 6,1 mol/L; 244 g/L)**
- 7.- Azido nitriko komertziala %70-koa den ur-disoluzioa da. Bere dentsitatea  $1,42$  g/cm<sup>3</sup> bada, zein da bere molartasuna?  
**(15,8 mol/L)**
- 8.- 3 M den azido azetiko (  $C_2H_4O_2$  ) disoluzioa dugu. Bere dentsitatea 1,1 g/mL-koa bada, zein da solutu masa portzentajea? 500 mL disoluzioan zenbat gramo azido purua egongo dira?  
**( %16,4; 90 g azido azetiko.)**